

ATZO ZEHAZTU ZUTEN PROZESUARI AZKEN ALDIAN EGIN ZAIZKION ERASOEI ERANTZUTEKO MODU BATERATUA

Lizarra-Garaziko sinatzaileek manifestazio eta lanuzte baterako deialdia egin dute

■ Apirilaren 10ean manifestaldia egingo da Bilbon 'Bakea eraikitzen-Euskal Herriak du hitza' lelopean

■ Prozesuak azken aldian jasan dituen erasoek aurrerantzean jarraipena izango dutela diote Lizarra-Garaziko sinatzaileek

■ Bake prozesuarentzat eragozpen izan daitezkeen jarrerak arbuiatzea eskatzen dute atzo aurkeztutako agirian

I. Olabarri / Bilbo

ASTEAN zehar Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zuten alderdi, sindikatu eta erakunde sozialek iragarri zituzten mobilizazioak finkatu ziren atzoko bileran. Apirilaren 10erako Bilbon manifestazio isil bat antolatu dute, bihar bertan arratseko 20:00etan ordu erdiko bilkura isilak egingo dituzte udalerri guztietan, eta apirilaren 12an 12:00etatik aurrera ordubeteko lanuzteak. HBko Arnaldo Otegi, EAJko Joseba Egibar, IU-EBko Antton Karrera eta ABko Richard Irazustak eskaini zuten atzo Bilbon prentsaurrekoa mobilizazioen berri emateko.

EAJ, HB, EA, IU-EB, AB, Bazarre, Zutik, ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta Hiruk sinatutako agirian aipatzen dituzten mobilizazioak *Bakea eraikitzen-Euskal Herriak du hitza* lelopean egingo dituzte. Sinatzaileek zera agertzen dute euskal gizarteari zuzendutako agiri horretan: «Egungo prozesu politikoa gero eta atzeraezinago egiteko konpromiso eta jarrera konstruktiboak galdegiten dizkie esparru instituzional, politiko eta sindikalei. Erantzun egokia eman behar diogu guztiok herrian horren hedatuta dagoen sentimenduari».

Mobilizazioetako deialdi guztiak «era aktibo eta demokratikoan bere egin ditzan» eskatu zioten euskal gizarteari sinatzaileek. Agirian agertzen dutenez, «argi utzi nahi dugu egoera berri honek zera eskatzen duela: prozesuak piztu dituen energia eta itxaropen guztiak ekintza bateratu, anitz eta demokratiko bilakatzea».

Erantzun horrekin prozesuaren alde egiteko duten asmoa argi eta garbi adierazi nahi dute sinatzaileek. «Soilik jokabide horrekin izango gara ireki diren elkarlan guneak indartu eta abiatu den prozesu politikoa behin betiko finkatzeko gauza».



Antton Karrera, Joseba Egibar, Richard Irazusta eta Arnaldo Otegi, atzo Bilbon eskainitako prentsaurrekoan.

XOUSE SIMAL

Oztopo diren jarrerak arbuiatu

Lizarra-Garaziko sinatzaileen idatziak diotenez, «euskal gizarteak argi utzi du bere heldutasuna, eta badaki bereizten Euskal Herriarentzat bake eta demokraziatzeko eszenatoki berri bat nahi dutenen eta iraganeko egoeretan jarraitu nahi dutenen artean».

Azken boladan prozesuak

egitaraua

Martxoaren 26a: Arratsaldeko 20:00etan hasita, ordu erdiko bilkura isilak Euskal Herriko udalerri guztietan.

Apirilaren 10a: Manifestazio isila Bilbon, arratsaldeko 17:30etan hasita.

Apirilaren 12a: Ordubeteko lanuztea, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

eraso ugari jasan dituela salatu eta eraso horiek etorkizunean jarraipena izango dutela iragarri zuten agirian. «Horiek ere erantzun bateratu, tinko eta irmoa eskatzen dute».

Atzoko agirian une zailak direla nabarmentzen dute sinatzaileek. «Euskal Herriko emakumezko eta gizonezko bi oinarri dituen mezua adierazi nahi dizuegu: lasaitasuna, batetik, eta gatazkaren

konponbiderako elkarriketa eta negoziazio bideen apustueenganako konfiantza, bestetik».

Agiriaren azken lerroetan agertzen dutenez, «herriko gehiengoaren borondateak berretsitako bide politikoak eta erabaki demokratikoak dira benetan eraginkor eta ukaezinak. Inork ez dezake euskal hiritarren borondate askea ordezkatu, ez eta eragotzi ere».

«Erantzun polizial eta judizialak Madril eta Paristik»

■ ETA-K su-eten mugagabea indarrean jarri eta sei hilabete igaro direnean, eta gehiengo sozialak konponbiderako proposamen demokratikoak eskatu dituen artean, Frantziako eta Espainiako Estatuek ez dutela erantzun baikorrik eman nabarmendu

zuten atzoko agiria sinatu zuten Lizarra-Garaziko alderdi, gizarte erakunde eta sindikatuak.

Sinatzaileek atzo adostutako agirian esaten dutenez, azken sei hilabeteetan «Espainiako eta Frantziako bi Gobernuen arduragabekeria politi-

koa nabarmen geratu da». «Euskal gizarte eta erakundeek erabakiekiko mespretxu sistematikoa eta elkarriketaren ukapenaren ondorioz, gobernu biek kutsu politiko nabaria duten erantzun polizial eta judizial hutsetara jo dute», adierazten du Lizarra-Ga-

raziko sinatzaileek euskal gizarteari zuzendu dioten idatziak.

Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu duten alderdien aurkako deskalifikazioak etengabeak direla diote, era berean, atzo ateratako agirian. «Era berean, deitoragarria da hainbat sek-

tore politiko eta mediatiko garrantzitsuk egoera berri hau aintzat hartu nahi ez izana, edo soilik bere aurka jarduteko eta porrot egin dezan ahaleginetan jarduteko ez bada, horrela bake prozesuko eragile aktibo bilakatzeari uko egingez».